

EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

Birbaremazioa 2024-2025

Gaur 2024/2025 ikasturteko birbaremazio-prozesuaren **behin betiko zerrendak** argitaratu dituzte.

Gora jotzeko errekurtsioak aurkezteko epea apirilaren 9tik maiatzaren 8ra bitartekoa izango da, biak barne, [Hezigunearen](#) bitartez.

Erreklamazioen erantzun arrazoituak norberak kontsultatu ahal izango ditu hurrengo estekan: "Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioaren emaitza kontsultatzea".

Informazio gehiagorako:

Irakasleak: [Hezkuntzaren web orrian](#)

Heziketa Bereziko Hezitzaileak: [Hezkuntzaren web orrian](#)

EAE-ko LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK

Lekualdatze-lehiaketa

Ondorengo kolektiboetako **langile finkoen** lekualdatze-lehiaketako deialdia argitaratu da Hezkuntzaren webgunean:

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- Fisioterapeutak
- Okupazio Terapeutak
- Transkriptoreak eta Materialaren Egokitzaileak

Eskaerak Hezigunearen bidez, apirilaren 8tik 15era, biak barne.

Informazio gehiago (oinarriak, gida...) [esteka honetan](#).

Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa

-2024-25 ikasturterako Adinagatiko Arreta Zuzenaren Murrizketen deialdia atera da.

-STEILASen azken urteetako borrokaren ondoren, bitarteko langileentzako ere zabaldu da aukera.

-Eskaera epea, apirilaren 9tik 19ra, biak barne, egongo da zabalik.

-Informazio gehiago esteka [esteka honetan](#).

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA EBATZI!!!